

ITZULPENA¹

Araua: 2006/40/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA, 2006ko maiatzaren 17koa, Ibilgailu motordunetako aire girotuko sistemak
eragiten dituen isurketei buruzkoa eta Kontseiluaren 70/156/EEE Zuzentaraua aldatzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*Directiva 2006/40/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de mayo de 2006, relativa a las emisiones procedentes de sistemas de aire acondicionado en vehículos de motor y por la que se modifica la Directiva 70/156/CEE del Consejo*» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 161 de 14/6/2006)

**2006/40/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA
2006ko maiatzaren 17koa**

**Ibilgailu motordunetako aire girotuko sistemak eragiten dituen isurketei buruzkoa eta Kontseiluaren
70/156/EEE Zuzentzaraua aldatzen duena**

(Testu egokia EEEari dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzen duen Ituna, eta, bereziki,
haren 95. artikulua aztertuta.

Batzordearen proposamena aztertuta.

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena
aztertuta ⁽¹⁾.

Itunaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari
jarraiki ⁽²⁾, Adiskidetze Komiteak 2006ko
martxoaren 14an onarturiko testu bateratua aztertuta.

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) Barne-merkatuak barne-mugarik gabeko esparrua dakar, eta, beraz, salgaien, pertsonen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea bermatu behar da bertan; horretarako, hain zuzen, ibilgailu motordunak homologatzeko erkidegoko sistema bat dago. Aire girotuen sistemei dagokienez, ibilgailu motordunak homologatzeko baldintza teknikoak bateratu egin behar dira, estatu kideek estatu batetik bestera aldatzen diren eskakizunak ezar ez dituzaten eta barne-merkatuak behar bezala funtzionatzea bermatzeko.
- (2) Gero eta estatu kide gehiagok nahi dute ibilgailu motordunetako aire girotuko sistemaren erabilera arautu. Asmo hori, hain zuzen, 2002ko apirilaren 25ean Kontseiluak hartutako 2002/358/EE Erabakiaren ondorio da; hau da, Europar Batasunaren izenean, Klima Aldaketari buruz Nazio Batuek sinatutako Esparru Hitzarmenean sartzen den Kiotoko Protokoloa onartzeari eta, Europar Batasun osorako, Protokoloari dagozkion konpromisoak betetzeari buruz hartutako erabakiaren ondorio⁽³⁾. hori dela-eta,

2008-2012 aldian, Erkidegoak eta horren estatu kideek nahitaez gutxitu beharko dituzte berotegi-efektua eragiten duten gasen isuri antropogenikoak (gas-mota horiek Kiotoko Protokoloaren A eranskinean daude jasota). Zehazki, 1990. urtearekin alderatuz, %8 gutxitu beharko da gas-isuri hori. Konpromiso horiek betetzeari dagokionez, koordinazio-falta nabari da, eta, beraz, hori arrisksua izan daiteke, Erkidegoan ibilgailu motordunek modu askean zirkulatzeko oztopoak eragin baititzake. Horrenbestez, beharrezkoa da ibilgailuetan instalatuta dauden aire girotuen sistemak bete behar dituzten baldintzak zehaztea –horiek merkaturatzeko baimena emateko–; halaber, data jakin batetik aurrera, aire girotuko sistema-mota bat debekatu egin beharko da, berotegi-efektua sortzen duten eta 150 baino atmosfera-beroketa handiagoa eragiten duten gas fluoratuak dituzten sistemak, hain zuzen.

- (3) Ibilgailu motordunetako aire girotuen sistemak sortzen dituzten 134a hidrofluorokarburoaren (HFC-134a) isurketek 1300eko ahalmena dute atmosfera-beroketan, eta, horren ondorioz, klima-aldaketan duten eragina aintzat hartuta, kezka-iturri nagusi bihurtzen ari dira. Etorriz hurbil batean, 134a hidrokarburoaren (HFC-134a) alternatiba errentagarriak eta seguruak izango direla espero da. Aipatutako sistemak eragindako isurien isolamenduan izan den aurrerapena eta sistema horietan gas fluoratuak ordezkatzeko nahia kontuan hartuta, berrikusketa bat egin behar da; horrela, Zuzentzarau hau beste era bateko ibilgailu motordunetara hedatu behar den edo gas horiek atmosfera-beroketan duten potentzialari buruzko xedapenak aldatu behar diren erabakiko da. Horretarako, aintzat hartuko dira teknologian eta zientzian izandako bilakaera eta industriek produktuak planifikatzeko duten egutegia errespetatzeko beharra.
- (4) Berotegi-efektua duten zenbait gas fluoraturen debekua eraginkortasuna bermatzeko, berotegi-efektua eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuetarako diseinatutako aire girotuen sistemak ibilgailu motordunetan *gerora* jartzeko aukera mugatu behar da; era berean, aire girotuen sistemak elikatze gas horiek erabiltzea ere debekatu egin behar da.

¹ EO C 108, 2004.4.30ekoa, 62. or.

² Europako Parlamentuaren irizpena, 2004ko martxoaren 31koa (EO C 103 E, 2004.4.29, 600. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2005eko ekainaren 21ekoa (EO C 183 E, 2005.7.26, 17. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2005eko urriaren 26koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea). Europako Parlamentuaren legegintzako ebazpena, 2006ko apirilaren 6koa eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko apirilaren 25ekoa.

³ EO L 130, 2002.5.15ekoa, 1.or.

- (5) Ibilgailu motordunetako aire girotuen sistemak eragindako berotegi-efektuko zenbait gas fluoraturen isurketa mugatzeko, isuri-indizean muga jarri behar da, eta, horrez gain, ibilgailu motordunetan instalatuta dauden aire girotuen sistemen isuria ebaluatzeko proba-prozedura bat ezarri behar da baldin eta sistema horiek berotegi-efektua eragiten badute eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuatarako diseinatuta badaude.
- (6) Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenean, Kiotoko Protokoloan eta 2002/358/EE Erabakian Erkidegoak eta estatu kideek zenbait konpromiso hartu zituzten, eta konpromiso horiek betetzen laguntzeko, honako erabaki hauek hartu eta *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu behar dira: batetik, 2006ko maiatzaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 842/2006/EE Erregelamendua, berotegi-efektuko gas fluoratu batzuei buruzkoa⁽¹⁾, eta, bestetik, Zuzentarau hau. Izan ere, biek berotegi-efektuko gas fluoratuen isuriak gutxitzen laguntzen dute.
- (7) Ibilgailuak egiten dituzten fabrikatzaile guztiek homologazio-agintariei eman beharko diete instalatutako aire girotuen sistemei eta horietan erabilitako gasei buruzko informazio tekniko guztia. Berotegi-efektua eragiten duten eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuak dituzten aire girotuko sistemak badira, fabrikatzaileak sistema horien isuri-indizea ere jakinarazi beharko diete.
- (8) Zuzentarau hau betetzeko beharrezko neurriak onartu behar dira, 1999ko ekainaren 28ko Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiari jarraiki; hau da, Batzordeari esleituriko eskumenak baliatzeko prozedurak ezartzen dituen erabakiari jarraiki⁽²⁾.
- (9) Zuzentarau hau Kontseiluaren 70/156/EEE Zuzentaruak (1970eko otsailaren 6koa) sortutako CE homologazio-prozeduraren zuzentarau berezietako bat da, estatu kideek ibilgailu motordunen eta horien atoen homologazioari dagokienez legedia apur bat bateratzeari buruzkoa, hain zuzen⁽³⁾. Beraz, 70/156/EEE Zuzentaruak horren arabera aldatu behar da.
- (10) Zuzentarau honen helburuak –hau da, ibilgailuetako aire girotuen sistemak dituzten zenbait gas fluoraturen isuria kontrolatzea eta, data jakin batetik aurrera, berotegi-efektua eragiten duten eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuak dituzten aire girotuko sistemak debekatzea– estatu kideek beraien aldetik behar bezala ezin dituztenez bete,

eta, Zuzentarau honen garrantzia eta ondorioak kontuan hartuta, erkidego-esparruan hobeto lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake, Itunaren 5. artikuluan zehaztutako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan aipatutako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, Zuzentarau honek ez du helburu horiek lortzeko behar baino gehiago egiten.

- (11) “Lege hobeak egin” Erakundeen arteko Akordioaren⁽⁴⁾ 34. paragrafoan arautzen denari jarraiki, estatu kide bakoitzak bere koadroa egin dezan sustatu da; hau da, koadro batean jartzea, Zuzentarau honen eta transposizioa egiteko neurrien arteko bateragarritasuna, ahal den neurrian (bai estatu bakoitzaren intereserako, bai Erkidego osoaren intereserako); eta gero, taula horiek argitaratzea.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Helburua

Zuzentarau honen bidez, ibilgailuen CE homologazioa eta homologazio nazionala egiteko baldintzak ezarri dira; zehazki, ibilgailuetan instalatutako aire girotuen sistemak eragindako isuriei eta sistema horien funtzionamendu seguruari dagokienez. Era berean, sistema horiek berregokitzeari eta berriz kargatzeari buruzko xedapenak ere ezarri ditu.

2. artikulua

Aplikazio-eremua

Zuzentaruak M1 eta N1 mailetako ibilgailu motordunetan aplikatuko da, 70/156/EEE Zuzentaruaren II. eranskinean zehaztutakoari jarraiki. Zuzentarau honetan, N1 mailako ibilgailuak I. mailako ibilgailuetara mugatuko dira, Kontseiluaren 70/220/EEE Zuzentaruaren⁽⁵⁾ (1970eko martxoaren 20koa) I. eranskinaren 5.3.2.4 paragrafoko lehenengo taulan deskribatutako ibilgailuetara, hain zuzen. Zuzentarau horrek, ibilgailu motordunen isuriek eragindako atmosfera-kutsaduraren aurkako neurriak direla-eta, estatu kideek legedia apur bat bateratzeari buruzkoa da, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/69/EE Zuzentaruaren bidez txertatu da⁽⁶⁾.

3. artikulua

Definizioak

Zuzentarau honetan, definizio hauek aplikatuko dira:

¹ Ikus Egunkari Ofizial honen 1. orrialdea.

² EO L 184, 1999.7.17koa, 23. or.

³ EO L 42, 1970.2.23koa, 1.or. Azken buruan Batzordearen 2006/28/EE Zuzentaruak aldatutako zuzentaruak (EO L 65, 2006.3.7koa, 27. or.).

⁴ EO C 321, 2003.12.31koa, 1. or.

⁵ EO L 76, 1970.4.6koa, 1.or. Azken buruan, Batzordearen 2003/76/EE Zuzentaruak aldatutako zuzentaruak (EO L 206, 2003.8.15koa, 29. or.).

⁶ EO L 350, 1998.12.28koa, 1.or.

- 1) «Ibilgailua»: Zuzentarau honen aplikazio-eremuaren baitako edozein ibilgailu motordun.
- 2) «Ibilgailu-mota»: 70/156/EEE Zuzentaruaren II. eranskineko B atalean zehaztutako mota.
- 3) «Aire girotuko sistema»: ibilgailu bateko bidaiari-konpartimentuan, airearen tenperatura eta hezetasuna gutxitzea helburu nagusi duen edozein sistema.
- 4) «Lurruntze-sistema bikoitza»: bi lurrungailu dituen sistema, bata motorra dagoen konpartimentuan, eta bestea ibilgailuko beste konpartimentu batean. Gainerako sistema guztiek «lurruntze-sistema bakarra» dutela ulertuko da.
- 5) «Berotegi-efektua duten gas fluoratuak»: Kiotoko Protokoloaren A eranskinean dauden hidrofluorokarburoak (HFC), perfluorokarburoak (PFC) eta azufre-hexafluoruroa (SF₆) nahiz substantzia horiek dituzten prestakinak, 2000ko ekainaren 29ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2037/2000 (EE) Erregelamenduari –ozono-geruza zulatzen duten substantziei buruzkoa⁽¹⁾– jarraiki araututako substantziak salbu.
- 6) «Hidrofluorokarburoa»: karbonoak, hidrogenoak eta fluorak osatutako konposatu organikoa, sei karbono-atomo baino gutxiagoko molekula duena.
- 7) «Perfluorokarburoa»: karbonoak eta fluorak osatutako konposatu organikoa, sei karbono-atomo baino gutxiagoko molekula duena.
- 8) «Atmosfera berotzeko ahalmena»: berotegi-efektuko gas fluoratu batek klima-beroketan duen ahalmena, karbono dioxidoarekin alderatuz. Atmosfera berotzeko ahalmena (PCA) gas-kilogramo baten berotze-ahalmena CO₂ren kilogramo batek duen ahalmenarekin alderatuz lortzen da (100 urteko epean). Atmosfera berotzeko ahalmenaren kopuruak Klima Aldaketaren Adituen Gobernu arteko Taldeak egindako Ebaluazioaren Hirugarren Txostenean daude argitaratuta («IPCCk atmosfera berotzeko ahalmenari dagokionez 2001. urterako emandako balioak»)⁽²⁾.
- 9) «Prestakinak»: bi substantzia edo gehiago nahastuz lortzen den nahastea da; horietako bat, gutxienez, berotegi-efektuko fluoratua da. Prestakinak atmosfera berotzeko duen ahalmen

guztia eranskinaren 2. zatiaren arabera zehaztuko da⁽³⁾.

- 10) «Berregokitzea»: aire girotuko sistema bat instalatzea ibilgailua matrikulatu ondoren.

4. artikulua

Estatu kideen betebeharrak

1. Aire girotuen sistemek eragindako isuriak direla-eta, Estatu kideek Zuzentarau honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten ibilgailu-moteki soilik emango diete CE homologazioa eta homologazio nazionala.

2. 70/156/EEE Zuzentaruaren 4. artikuluko 1. paragrafoaren a) idatz-zatiaren arabera ibilgailuei erabateko homologazioa emateko, estatu kideek ibilgailu motordun berrietan instalatutako aire girotuen sistemetan erabilitako hozte-sistemaren motari buruzko informazioa emanaraziko diete fabrikatzaileei.

3. Berotegi-efektua eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuetarako diseinatutako aire girotuen sistemak dituzten ibilgailuak homologatzeko, estatu kideek zaindu egingo dute gas horien isuri-indizea ez dela 5. artikuluan zehaztutako gehienezko kopurua baino handiagoa; horretarako, hain zuzen, 7. artikuluko 1. paragrafoan aipatzen den isuriak hautemateko proba bateratua hartuko da kontuan.

5. artikulua

Homologazioa

1. Isurien proba bateratua onartzen den egunetik sei hilabete pasatzen direnean, estatu kideek ezingo dituzte aire girotuen sistemak eragindako isuriak alegatu,

a) ez ibilgailu-mota berri bati CE homologazioa edo homologazio nazionala ukatzeko,

b) ezta ibilgailu berriak matrikulatzea, saltzea edo zerbitzuan jartzea debekatzeko ere,

berotegi-efektua eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuak izateko diseinatuta dauden aire girotuko sistema duten ibilgailuak Zuzentarau honen baldintzak betetzen baditu.

2. Isurien proba bateratua onartzen den egunetik 12 hilabete pasatzen direnean edo 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera (bietako azkena hartuko da kontuan), estatu kideek ez diete CE homologaziorik eta

¹ EO L 244, 2000.9.29koa, 1.or. Azken buruan, Batzordearen 29/2006 (EE) Erregelamenduak aldatutako Erregelamendua (EO L 6, 2006.1.11koa, 27.or.).

² IPCCk klima aldaketari buruz egindako hirugarren Ebaluazio Txostena, 2001ekoa. Gobernu arteko Taldeko Adituek klima aldaketari buruz egindako txostena (<http://www.ipcc.ch/pub/reports.htm>).

³ Prestakinetan dagoen berotegi-efektuko gas ez fluoratuen PCA kalkulatzeko, IPCCren lehenengo Ebaluazio Txostenean argitaratutako balioak aplikatuko dira; ikus: Climate Change, The IPCC Scientific Assessment, J.T. Houghton, G.J. Jenkins, J.J. Ephraums (ed.), Cambridge University Press, Cambridge (RU) 1990.

homologazio nazionalik emango berotegi-efektuko eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoko gas fluoratuetarako diseinatutako aire girotuen sistema duten ibilgailu-motei, honako kasu honetan izan ezik: urtean, sistema horren berotegi-efektuko gas fluoratuen 40 gramo baino gutxiago isurtzen badira lurrintze-sistema bakarra dutenetan, edota gas-mota horien 60 gramo baino gutxiago isurtzen badira lurrintze-sistema bikoitza dutenetan.

3. Isurien proba bateratua onartzen den egunetik 24 hilabete pasatzen direnean edo 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera (bietako azkena hartuko da kontuan), berotegi-efektua eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuetarako diseinatutako aire girotuko sistema duten ibilgailu berriak kontuan hartuta –urtean, sistema horren berotegi-efektuko gas fluoratuen 40 gramo baino gutxiago isurtzen badira lurrintze-sistema bakarra dutenetan, edota gas-mota horien 60 gramo baino gutxiago isurtzen badira lurrintze-sistema bikoitza dutenetan salbu–. estatu kideek:

a) 70/156/EEE Zuzentarauaren I. paragrafoko 7. artikuluari jarraiki, homologazio-ziurtagiriak iraungi egin direla erabakiko dute, eta

b) matrikulazioa ukatzeaz gain, ibilgailua saltzea eta zerbitzuan jartzea debekatuko dute.

4. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, estatu kideek ez diete CE homologaziorik eta homologazio nazionalik emango berotegi-efektua eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuak izateko diseinatutako aire girotuko sistema duten ibilgailu-motei.

5. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, berotegi-efektua eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuetarako diseinatutako aire girotuen sistema duten ibilgailu-motei dagokienez, estatu kideek:

a) 70/156/EEE Zuzentarauaren I. paragrafoko 7. artikuluari jarraiki, homologazio-ziurtagiriak iraungi egin direla erabakiko dute, eta

b) matrikulazioa ukatzeaz gain, ibilgailua saltzea eta zerbitzuan jartzea debekatuko dute.

6. Erkidegoko dagokion Zuzenbideari kalterik eragin gabe (bereziki, laguntza publikoei buruzko erkidegoko arauak eta 1998ko ekainaren 22ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/34/EE Zuzentaraua –arau eta erregelamendu teknikoaren eta informazio-gizartearen zerbitzuei buruzko arauen berri emateko informazio-prozedura abian jartzen duena⁽¹⁾), estatu kideek sustatu ahal izango dute aire girotuko sistema eraginkorrak eta berriztatzailak, klima-inpaktua neurri handiangoan gutxituko dutenak, instalatzea.

6. artikulua

¹ EO L 204, 1998.7.21eko, 37.or. Azken buruan, 2003ko Atxikitze-aktak aldatutako zuzentaraua.

Berregokitzea eta berriz kargatzea

1. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, berotegi-efektua eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuetarako diseinatutako aire girotuen sistemak ez dira berregokituko data horretatik aurrera homologatutako ibilgailuetan. 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera, aire girotuko sistema horiek ezingo dira ibilgailu bakar batean ere berregokitu.

2. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera homologatutako ibilgailuetan, aire girotuko sistemak ezin izango dira berotegi-efektuko eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuz berriro kargatu. 2017. urteko urtarrilaren 1etik aurrera, berriz, ibilgailuen aire egokituko sistema bakar bat ere ezingo da berotegi-efektua eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuz berriro kargatu, gas-mota hori duten eta ibilgailuetan data hori baino lehenago instalatu diren aire egokituko sistemetan izan ezik.

3. Sistematik ohiz kanpoko hoztaile-kopuru bat jariatzen bada, aire egokituko sistemak mantentzeko eta konpontzeko zerbitzuak ematen dituztenek ezingo dituzte aparatu horiek berotegi-efektuko gas fluoratuekin berriro kargatu, beharrezko konponketa egin arte.

7. artikulua

Betearazpen-neurriak

1. Gehienez ere, 2007ko ekainaren 4rako, Batzordeak 4. eta 5. artikulua betearazteko neurriak hartuko ditu, eta, bereziki:

a) ibilgailuak EErako homologatzeko administrazio-xedapenak, eta

b) jarria hautemateko proba bateratu bat, aire girotuko sistemetan dauden berotegi-efektua eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duten gas fluoratuen jario-indizea neurtzeko.

2. Batzordeak horretarako neurriak hartuko ditu, 70/156/EEE Zuzentarauaren 13. artikuluan araututakoari jarraiki.

3. Batzordeak neurri horiek *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratuko ditu.

4. 2. paragrafoan aipatu den prozedura hori honako kasu hauetan aplikatuko da, hala badagokio:

a) Aire girotuko sistema mugikorretako hoztaileen funtzionamendu segurua eta zerbitzu egokia bermatzeko beharrezko diren neurriak hartzean.

b) Aire girotuko sistemak dituzten eta erabileran dauden ibilgailuak berregokitzeari nahiz aire girotuko sistemak berriro kargatzeari buruzko

neurriak hartzean (6. artikulua kontuan hartzen ez dituen heinean).

- c) Prestakinek atmosfera berotzeko duten ahalmena zehazteko metodoa egokitzean.

8. artikulua

Berrikuspena

1. Gas fluoratuen isuriei eusteko nahiz ibilgailu motordunetan instalatutako aire girotuko sistemetan gas horiek ordezkatzeko egindako aurrerapenak kontuan hartuta, Batzordeak honako hauek aztertuko ditu:

— Legedi hau beste ibilgailu-kategoria batzuetara hedatu behar ote den; bereziki, M2 eta M3 kategorietara nahiz N1 kategoriako II eta III motetara.

— Berotegi-efektuko gas fluoratuek atmosfera berotzeko duten ahalmenari dagokionez erkidegoan dauden xedapenak aldatu egin behar ote diren; aldaketa oro egiteko, teknologian eta zientzian egindako aurrerapenak eta industria-produktuen plangintza egiteko epeak errespetatzeko beharra aintzat hartu beharko dira.

Gai horiek aztertu ondoren, txosten bat argitaratuko du (beranduenez ere, 2011ko ekainaren 4an), eta, hala badagokio, beharrezko lege-proposamenak aurkeztuko ditu.

2. Berotegi-efektua eta atmosfera berotzeko 150 baino ahalmen handiagoa duen gas fluoratua –3. artikuluko 8. paragrafoan aipatutako IPCCren txostenean kontuan hartu gabea– IPCCren etorkizuneko txostenean sartzen denean, horretarako indarrean dagoen Zuzentaraua aldatu egin behar ote den ebaluatuko du Batzordeak. Batzordeak beharrezko dela irizten badio, honako egiteko hauek beteko ditu, 70/156/EEE Zuzentarauaren 13. artikuluan araututakoari jarraiki:

— Beharrezko neurriak hartuko ditu

— Neurri horiek aplikatzeko behin-behineko epeak ezarriko ditu, eta oreka bilatuko du denbora-epe egoki baten premiaren eta berotegi-efektuko gas fluoratuek ingurumenerako duten arriskuaren artean.

9. artikulua

70/156/EEE Zuzentarauaren aldaketak

70/156/EEE Zuzentaraua aldatu egin da, Zuzentarau honen eranskinaren 1. zatian xedatutakoaren arabera.

10. artikulua

Zuzenbide nazionalean sartzea

1. Estatu kideek Zuzentarau honetan araututakoa betetzeko beharrezkoak diren xedapen legalak, arauzkoak eta administratiboak erabaki eta argitaratuko dituzte –beranduenez ere 2008ko urtarrilaren 4an–. Xedapen horiek 2008ko urtarrilaren 5etik aurrera jarriko dira indarrean.

Estatu kideek xedapen horiek erabakitzen dituztenean, xedapenek Zuzentarau honi egingo diote erreferentzia, edo, bestela, erreferentzia horrekin batera agertuko dira ofizialki argitaratzen direnean. Beraz, estatu kideek aipatutako erreferentziako modalitateak ezarriko dituzte.

2. Bestalde, estatu kideek Batzordeari jakinarazi beharko dizkiote Zuzentarau honek araututako eremuan hartutako Zuzenbide nazionaleko xedapen nagusiak.

11. artikulua

Indarrean jartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit egunera jarriko da indarrean Zuzentarau hau.

12. artikulua

Hartzaileak

Estatu kideak dira Zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon egina, 2006ko maiatzaren 17an.

Europako Parlamentuaren izenean,

Presidentea

J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean,

Presidentea

H. WINKLER

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ERANSKINA

70/156/EEE Zuzentarauan honako aldaketa hauek egin dira:

1) IV. eranskinean, I. zatian, 61. paragrafo berria eta honako ohar hau gehitu dira:

Gaia	Zuzentarauaren zenbakia	Egunkari Ofizialaren erreferentzia	Honako hauei aplika dakieke										
			M ₁	M ₂	M ₃	N ₁	N ₂	N ₃	O ₁	O ₂	O ₃	O ₄	
«61. Aire girotuko sistemak	2006/40/EE	L 161 2006.6.14koa 12. or.	X			X (8)							

(8) N1 kategoriako (1. mota) ibilgailuetarako soilik, 70/220/EEE Zuzentarauaren eranskinaren 5.3.1.4. paragrafoko lehenengo taulan deskribatu bezala; Zuzentarau hori, zehazki, 98/69/EE Zuzentarauaren bidez sartu da»

2) XI. eranskinean honako aldaketa hauek egin dira:

a) I. gehigarrian 61. paragrafoa gehitu da; honako hau, hain zuzen:

Paragrafoa	Gaia	Zuzentarauaren zenbakia	M1 (1)kg ≤2500	M1 > 2500 (1)kg	M ₂	M ₃
«61.	Aire girotuko sistemak	2006/40/EE	X	X»		

b) 2. gehigarrian 61. paragrafoa gehitu da; honako hau, hain zuzen:

Paragrafoa	Gaia	Zuzentarauaren zenbakia	M ₁	M ₂	M ₃	N ₁	N ₂	N ₃	O ₁	O ₂	O ₃	O ₄
«61.	Aire girotuko sistemak	2006/40/EE	X			W»						

c) 3. gehigarrian 61. paragrafoa gehitu da; honako hau, hain zuzen:

Paragrafoa	Gaia	Zuzentarauaren zenbakia	M ₂	M ₃	N ₁	N ₂	N ₃	O ₁	O ₂	O ₃	O ₄
«61.	Aire girotuko sistemak	2006/40/EE			W»						

d) «Idatz-zatien esanahia» atalean honako idatz-zati hau sartu da:

«WN1 kategoriako (1. mota) ibilgailuetarako soilik, 70/220/EEE Zuzentarauaren I. eranskinaren 5.3.1.4. paragrafoko lehenengo taulan deskribatu bezala; Zuzentarau hori, zehazki, 98/69/EE Zuzentarauaren bidez sartu da».

2. ZATIA

Prestakin batek atmosfera berotzeko duen ahalmena (PCA) kalkulatzeko metodoa

Atmosfera berotzeko duen guztirako ahalmena batez besteko haztatua da, honen batura, hain zuzen: substantziaren zatia (pisuan adierazita) bider haren PCA gehi beste substantziaren zatia bider haren PCA gehi...

$$\Sigma (X \text{ Substantziaren } \% \times \text{PCA}) + (Y \text{ Substantziaren } \% \times \text{PCA}) + \dots (N \text{ Substantziaren } \% \times \text{PCA})$$

% pisuaren araberako ekarpena da, eta pisu-tolerantzia honako hau da: +/- %1.

Adibidez, formula hori gas trinkoen nahaste teoriko honi aplikatzean: %23 HFC-32; %25 HFC-125 eta %52 HFC-134a:

$$\Sigma (23 \% \times 550) + (25 \% \times 3\,400) + (52 \% \times 1\,300)$$

→ PCA guztira=1 652,5.